


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

MARINEL KALEA 9



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago espedienterik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, erdisotoa, bastardea, hiru oin eta 1952ko bi jasodura atzeraeman dituena. Fatxada harlandua, goi oinetan hormigoizko begiratoki zentrala duena, babes-horma dekoratuarekin errematatua.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena

A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (4. eta 5. goi oinak)

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.